

Zaro

Aurkibidea

Udalerria: Zaro

Sarrera



Nafarroa Behereko hegoaldeko udalerria, Garazi eskualdekoa. Honako udalerriak ditu mugakide: Donazarre iparraldean; Donibane Garazi ipar-mendebaldean; Aintzila hegoaldean; eta Eiheralarre hegoaldean. (Argazkia www.eke.eus webgunetik hartua)

- **Biztanleak:** 186
- **Euskaldunak:** %73,91

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **2**
- Zintak: **2**

- Pasarteak: **11**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **11**

Proiektuak

- Diasporako Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Jean-Baptiste Barberarena (1938)



Jean-Baptiste Barberarena Zaron sortu zen 1938ko agorrilaren 28an eta zazpi haurridetako familia batean hazi zen. Eskolan ibili zen 7 urtetarik 14 urtera arte, lehenik herrian, "zertifikata" lortu arte, eta azken urtea Donibane-Garazin, espainola ikasteko. Aitatxik Egurgin erosi zuen etxola bere saroarekin XIX. mende erditsutan. Geroztik aitatik semera, belaunaldiz-belaunaldi, uda guziak bortuan iragan dituzte, neguko bazkak, aldiz, Amikuze aldean erosiz. Gaur erretiratua izanik ere, Jean-Baptiste Egurgira igaiten da kabala batzuekila.

Dominique Berhan (1939)



Donibane Garazi ondoko Zaro herrikoa, zortzi haurridetan gazteena. 1957an Ameriketara joan zen artzain, Fresno (California). Sei urte eta erdi egin zituen ardiekin lanean. Altzari lantegi batean egon zen lanean 17 urtean. 1963an Grace ezagutu zuen, Bidarraikoa, haurzain joana hura; bi alaba izan zituzten. Ondoren motela erosi zuten Carson Cityn (Nevada); negozioa ez zen ondo joan eta saldu egin zuten. Mindenen (Nevada) bizi da azken urteetan eta Gadenervilleko euskal komunitateko kidea da. Dantzazalea eta kantuzalea da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Artzaingoaren transmisioa hiru belaunaldietan zehar (1860-2000) (ZRO-001/001)

Aitatxi Garaldarra zuen Paullek. Ameriketatik itzultzean etxola bere saroarekin erosi zituen Garaziko sindikatari. Hau gauza arraroa, gehienetan etxola eta

saroa Garaziko sindikatarenak gelditzen baitira. Aitaren denboran, artzainak maiatza hasieran (lehenean edo bian) igotzen ziren bortura eta han egoiten abendo hondarra arte. Ardiak urtarrian edo otsailan erditzen ziren. 1956ko izoztearen ondotik, artzainek ekoizteko ohidurak aldatu zituzten : ardiak gero eta goizago erdiarazten hasi ziren.

2. Haurtzaroa Zaron 1940 hamarkadan (ZRO-001/002)

Eskolan bortxaz ibiltzen zen Paulle. Hala ere lehen maila Zaron egin ondoan, urte batez Donibane-Garazin ibili da Española ikasteko, pentsatuz bortuko harat-honatentzat baliagarri izanen zitzaiola. Goizik hasi zen artzaingoan, ofizioa aitarekin ikasiz.

3. Ardi gasna egitea moda zaharrear 1950 hamarkadan (ZRO-001/003)

Aitarekin ikasirik, ardi gasna egiten zuten bortuan moda zaharrear : esnea behin bakarrik beroaraziz eta gasna erraraziz gaxura ateratzeko. Neguan aldiz, esnea saltzen zuten Garruzeko esnetegiari. Hau zerratu zen 1956ean, ondorioz esnea Donapaleuko esnetegira eramen behar zuten « Roquefort » gasna egiteko. 1938an hezurreria deitu eritasunak makur frango egin zuen artaldeetan, orduko hezurreria oraiko agalaxiaren antzekoa zen.

4. Artzain 1963tik goiti (ZRO-001/004)

Paulle bere kondu plantatu zen 1963an. Etxeko artaldea emendatu zuen ardi batzu erosiz. Neguko bazkak Amikuze aldean erosten zituen, uda guziak aldiz Egurgin iragaiten. Xiberotarren moldean hasi zen gasna egiten, esnea bi aldiz berotuz. Gasnak ostatu batzueri saltzen zituen bai eta ere gasna saltzaile batzuen bidez.

5. Artzaingoaren bilakaera (1965-2005) (ZRO-001/005)

Duela berrogei bat urte, lau artzain xoil baziren Egurgin berean, Paulleren etxolaren auzoan. Inguruetan ere, lurrik gabeko artzain frango baziren ardi tropa ttipiekin. Azken urte hauetan, artzain kopurua apaldu da, artaldeak aldiz anitz emendatu.

6. Artzain lana Egurgin (1965-2005) (ZRO-001/006)

Egurgin eginak diren etxolen berezitasuna da saroaren parte bat Frantziako lurretan dela, bestea aldiz Espainian. Ondorioz artzainek lan handia zuten ardiak ongi zaintzen, bereziki gauaz Garaziko lurretan egon behar baitzuten. Egurgiko artzainek harreman frango zuten Orbaizetakoekin. Tamalez, bi eskualdeetan artzain kopurua murriztu da, Orbaizetan kasik desagertu arte.

7. Aldaketak bortu gaineko azpiegituretan (1970 hamarkadatik goiti) (ZRO-001/007)

1975ean Egurgirainoko bidea ireki zen. Garai berean egin ziren etxolen arraberritzeak, ura eta elektrika ezartzeak. Garaziko sindikatak kudeatu obra hauek artzainen lan baldintzak errextu zituzten. Artzain ofizioa ere emeki emeki merkatuari moldatu da, axuriak eguberriko salduz. Haatik lehenago artzainek sos ederra egiten zuten ardi ilearekin eta atzarrekin, orai ezin salduak direnak.

8. Garazi-Aezkoaren arteko juntak (1980 hamarkadan) (ZRO-001/008)

1980ko hamarkadan, Aezkoako mendi arduradunek juntak markatu zituzten bortuan artaldeak zaintzeko. Azken urte hauetan, ardi gutiago izanez Aezkoan, juntak ez dira gehiago erabiltzen, ondorioz ardiak nora nahi joaten dira.

9. Lurrik gabeko artzainen gero iluna (ZRO-001/009)

Artzain xoil ofizioa desagertzekotan ote da ? Azken hilabete hauetako arrangura guziak kontutan hartuz, Paullek pentsatzen du artzaingoak ez duela gerorik. Desagertze honek ondorioak izanen ditu bortuan : etxola frango hutsik geldituko da, ibiltzaile gero eta gehiago izanen da. Zer bilakatuko da mendia ?

10. Soldado 1950 hamarkadan (ZRO-001/010)

Hogei urtetan deitua izan zen Paulle soldadogoarentzat. Hamalau hilabete egin zituen Parisen, ondotik Algeriara joan aitzin itsasontziz. Algeriako oroitzapenik ez du kondatu nahi izan, itsuskeriak bizi izan dituztela, besterik ez. Algerian zelarik, Paulle-ren aitak mutila hartu zuen artzain lanentzat. Handik itzuli bezain laster, Paulle artzain ofizioan bermatu zen.

11. Kontrabanda 1960 hamarkadan (ZRO-001/011)

1960 hamarkadan, zaldiak pasatzen zituzten kontrabandan Hego aldetik Frantziara. Hiruzpalau urtez, paketa karreatzen ari izan da Paulle: zigarroak, kafea eta kobrea. Oroit da ere harpana edo trinka sega frango pasaarazirik.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-30

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com